

# Azterketak



Eusko Jaurlaritzaren eta  
Nafarroako Gobernuaren  
2007ko Aurrekontu-  
Proiektuen Azterketa

ELAko Azterketa Bulegoa

# Non zer

SARRERA ..... 3

A. HEGO EUSKAL HERRIARI BURUZKO ONDORIOZTAPENAK ..... 5

1. Gastu fiskalak
2. PFEZren erreforma
3. Iruzur fiskala
4. Aurrekontu-murrizketa
5. Zor publikoa
6. Gizarte-babeseko gastua: Hego Euskal Herria / Europar Batasuna
7. Europar Batasuneko azkenak osasunean
8. Europar Batasuneko azkenak hezkuntzan
9. Etxebizitza-Politika

B. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO GASTUAREN  
AZTERKETA ..... 15

1. 2007ko aurrekontu-proiektua
2. Gastu publikoaren bilakaera
3. Osasuneko gastu publikoa
4. Hezkuntzako gastu publikoa
5. Etxebizitzako gastu publikoa
6. Oinarrizko errenta eta gizarte-larrialdietarako laguntzak
7. Ingurumena, lurraldearen antolamendua eta azpiegiturak

C. NAFARROAKO GASTUAREN AZTERKETA ..... 23

1. Nafarroako gobernuaren gastu publikoa puztu egiten da
2. NGren gastu publikoak ekonomian duen pisua urritu egiten da
3. Osasuneko gastu publikoa
4. Hezkuntzako gastu publikoa
5. Etxebizitza: bermatu gabeko eskubide unibertsala



*Estudios-Azterketak* Saila 10. zenbakia  
Bilbao, 2007ko otsaila

Dokumentu honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) eta Nafarroako 2007ko ekitaldirako gastuen aurrekontu-proiektua aztertuko dugu. Bertan, bi erkidegootako gobernuek gastu publiko-  
ra bideratzeko aurreikusi dituzten diru-kopuruak azaltzen dira.

Oraingo ekitaldian gastatzea aurreikusten dena bezain garrantzitsua edo garrantzitsuagoa aurreko ekitaldietan benetan egindako gastua da, proiektuak, azken batean, zertan bete ez duten asmoak besterik ez baitira. Horregatik, proiektuei ez ezik, gastu globalak zein gastu zehatz batzuek Barne Produktu Gordinari (BPG) buruz izan duten bilakaerari ere erreparatuko diogu, horixe baita benetan egiten den ahalegina aztertzeke modua.

Gastu publikoaren zenbatekoa Foru Aldundien diru-kutxetara sartzen den diruaren menpe dago. Hori dela eta, bai batari bai besteari murrizketa nabaria eragiten dieten alderdi batzuk ere jorratuko ditugu. Era berean, 15 Estatukideko Europar Batasunarekiko (15-EB) dugun aldea ere ikusiko dugu, erkatzea ahalbidetzen duten aldagai batzuen bidez.

Txostena hiru ataletan egituratu dugu: lehenengoan, Hego Euskal Herriari (HEH) buruzko ondorioztapen batzuk azaltzen dira, eta beste bietan, EAERI eta Nafarroari buruzko azterketa zehatza egiten da.




**1. GASTU FISKALAK**

Gastu fiskalak EAEko Aldundiek eta Nafarroako Gobernuak zerga-arinketa, kenketa eta abarren zioz biltzeke uzten dituzten diru-kopuruak dira. Gastu fiskalak gutxikorrek dira, errentaren banaketan duten eragina zalantzazkoa izateaz gain, ez baitakarkiete onurarik kolektiborik behartsuenei. Baina beraien alderdirik kaltegarriena zerga-bilketan eta gastu publikoan eragiten duten murrizketa da.

EAEko 2007rako aurrekontu-proiektuak 6.046,2 milioi euro aurreikusten ditu gastu fiskaletan. Hiru Foru Aldundiek aurreikusitako diru-sarrerak 12.658 milioi eurokoak direlarik, benetan sartzen den diruaren erdia uzten da bildu gabe.

Biltzeke uzten dena eta benetan biltzen dena batuz gero, gastu fiskala zenbateko horren %32,3koa dela ikus daiteke.

**GASTU FISKALA ETA BENETAKO DIRU-SARRERA. EAE, 2007**




*EAEko Aurrekontu Orokorrei buruzko Proiektua, 2007*

Nafarroan, biltzeke uzten denari onura fiskal esaten zaio, gastu fiskal barik. 2007an, onura fiskala 1.443,5 milioi eurokoa (BPGaren %8,5) izatea aurreikusten da, hots, ekitaldi horretarako aurreikusitako benetako diru-sarreraren (3.519,5 milioi euro) ia erdia.

2007an bildu gabe uztea aurreikusten den diru-kopurua Nafarroako Gobernuaren gastu-sail garrantzitsuenenak baino handiagoa da: osasunean eta hezkuntzan, 1.365,7 milioi euro gastatze-

ko asmoa dago (onura fiskalei dagokiena baino 77,8 milioi euro gutxiago). Onura fiskalen zioz bildu gabe utziko dena Nafarroako Gobernuak etxebizitzarako zuzeneko gastu publikora bideratzea aurreikusi duena halako 18 da.

**GASTU FISKALA ETA BENETAKO DIRU-SARRERA.  
NAFARROA, 2007**



*Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua*

**2. PFEZren ERREFORMA**

Gure instituzioek PFEZn onartu duten erreformak ere izango du eragina 2007ko ekitaldiko gastuan: EAEn, 236,7 milioi euro geratuko dira diru-sarreretatik kanpo horren zioz, eta Nafarroan, 83 milioi.

**PFEZren ERREFORMAREN URTEKO KOSTUA, EAE,  
NAFARROA, HEH (milioi eurotan)**

EAE	236,7
NAFARROA	83
HEH	319,7

*Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Nafarroako EGL*

Sinestarazi nahi izan digutenaren kontra, erreforma horrek ez du pertsona guztien onura bilatzen. Aitzitik, PFEZ ordaindu behar izateko gutxienezko diru-sarreretara heltzen ez diren kolektibo behartsuenei erreformak ez die inolako onurarik ekarriko, baina diru-sarrera eta gastu publikoak murriztea beraien kalterako izango da, zerbitzu publikoen behar handiena dutenak dira eta.

Errenta-aitorpena egiten dutenetatik, diru-sarrerera handienak dituztenei dakarkie erreformak onurarik handiena, eta ez da hain onurgarria errenta txikiagoentzat.

### 3. IRUZUR FISKALA

Diru-sarrerak murrizarazten dituen beste faktore bat iruzur fiskala da (horren inguruko zifrak zerga arloari buruz urtero argitaratzen dugun txostenean azaldu genituen). Nafarroako 2007rako aurrekontu-proiektuak kontrol fiskalaren gaineko informazio interesgarria aztertzeo aukera ematen digu.

Zehazki, Foru Erkidego osoan zerga-ikuskaritzan arituko diren pertsonak 35 baino ez dira izango, hau da, 2006an baino 2 lagun gehiago. Hala ere, 350 ikuskapen egitea aurreikusten da, alegia, 2006ko kopuru bera. Ondoriozta daitekeenaren arabera, ikuskaritzan dabilen pertsona bakoitzak 10 ikuskapen egingo ditu, batez beste, urtean.

#### ZERGA-IKUSKARITZARI BURUZKO DATUAK. NAFARROA, 2007

Ikuskatzaileen kopurua	35
Egin beharreko ikuskapenak	350
Ikuskatzaileko ikuskapen kopurua	10

*Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua*

Ikuskaritzan aritzeko pertsonen kopurua eta egin beharreko ikuskapenen kopurua 2005eko aurrekontu-proiektuan jasotako berberak dira, 35 eta 350, hurrenez hurren, eta 2003tik aurrera, ikuskapenen kopurua, 350, ez da aldatu. Baina Nafarroako Gobernuak isilean gorde du beti benetan egiten diren ikuskapenen kopurua; beraz, arrazoizkoa da pentsatzea aurrekontu-proiektuan islatutako kopuru txikieta ere ez dela heltzen.

Zerga-ikuskaritzarako aurreikusitako gastua 2,3 milioi eurokoa da, hau da, BPGaren %0,0136. Gastu hutsal horrek argi uzten du Nafarroako Gobernuak iruzur fiskalari aurre egiteko daukan interes urria.

#### 4. AURREKONTU-MURRIZKETA

Diru-sarrerak murriztak izan eta urritzen segitu arren, euskal instituzioak ondo moldatu dira orain arte aurrekontu-proiektuak planteatzean finantza-orekari eusteko, eta, horrela, superabitez ixten dituzte ekitaldi guztiak.

Eusko Jaurlaritzak 545 milioi euroko superabitaz, BPGaren %0,95, itxi zuen 2005eko ekitaldia (dagoen azken informazioa urte horretakoa da), eta 2006ko superabita 91,2 milioi eurokoa izatea espero da. 2000tik aurrera, ekitaldi guztiak superabitez itxi dituelarik, Eusko Jaurlaritzak sei urteotan metatutako superabita 1.917 milioi eurokoa da.

#### EUSKO JAURLARITZAREN SUPERABITA. 2000-2006 (milioi eurotan)

2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006 (*)
490	289	328	54	211	545	91,2

(\*) *Aurreikuspena*

*Iturria: EAEko EGL.*

Nafarroan, berriz, 2006ko itxiera-aurreikuspenak 120 milioi euroko superabita erakusten du, hau da, BPGaren %0,7koa. 1995etik aurrera, Nafarroako Gobernuak 8 ekitalditan izan du superabita, eta 3tan, defizita.

#### NAFARROAKO GOBERNUAREN AURREKONTU-EMAITZA. 1995-2006 (milioi eurotan)

1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006 (*)
118,1	30,3	27,1	63,8	14,4	5,81	-66,6	31,72	-34,4	-84,1	73,6	120

(\*) *Aurreikuspena.*

*Iturria: Nafarroako Kontu Orokorrak*

Diru-kopuruok gizarte-premiak estaltzeko erabil zitezkeen, baina nahiago izan dute zor publikoa murrizteko erabili. Europar Batasunak ekitaldiak defizitez ixten dituelarik (BPGaren %2,3koa 2005ean), euskal instituzioek superabitez ixten dituzte, 15-EBren aldean gizarte-estalduretan jasaten dugun defizitari kasu egin gabe.



## 5. ZOR PUBLIKOA

Superabitei esker eta zor publikorik ez jaulkitzearen zioz, zor publikoak ekonomian duen pisua nabarmenki murrizten ari da.

Ejk 2006rako aurreikusitako zorra 556 milioi eurokoa da (BPGaren %0,9), 1998an (BPGaren %5,7) baino 4,8 puntu txikiagoa, alegia. Urte horretatik aurrera, EJren zor bizia 2.037,4 milioi eurokoa izatetik ia desagertzera igaro da.


Ejk 2006an 267 € inguruko zor bizia izango du pertsonako. Kopuru hori irrigarria da etxebizitza erostea erabakitzen dutenek hartzen duten zorrarekin alderatuta. Izan ere, batez besteko hipoteka 168.000 eurokoa zen 2006ko irailean.

Nafarroako zor bizia 640,5 milioi eurokoa izango da 2007an, BPGaren %3,8koa, alegia. Zor biziak BPGaren 3,4 puntuko urripena izan du 1998koaren aldean, orduan BPGaren %7,2koa baitzen.

Nafarroako batez besteko hipoteka 134.600 eurokoa delarik, Erkidegoko pertsona bakoitzeko zor bizia 1.079,3 eurokoa besterik ez da.

Adibide horrek ondo erakusten du HEHko administrazioek, euren zereginak bete beharrian, gero eta zorpetze txikiagoa egitea aukeratzen dutela, eginbeharrei aurre egiteko ardura gizartearen gain utziz, gero eta neurri handiagoan.

EJren ETA NGren ZOR PUBLIKOA (BPG %). 1998-2007



Iturriak: EAEko EGL, Eustat, NEI

## **6. GIZARTE-BABESEKO GASTUA:** **HEGO EUSKAL HERRIA / EUROPAR BATASUNA**

Hego Euskal Herrian gizarte-babesean egiten den gastuaren maila Europar Batasunekoaren oso azpitik dago, bai BPG ehunekolari, bai biztanleko gastatzen diren euroei begiratzuz gero.

### **6.1. Gizarte-babesera bideratzen den aberastasun ehunekoa**

EAEn, BPGaren %19,2 zuzentzen da gizarte-babesera, eta Nafarroan, %17,5. Kopuruok 15 Estatuko Europar Batasuneko batez bestekoaren oso azpitik jartzen gaitu, bertako batez bestekoa BPGaren %28,3koa baita. 15-EBn EAEn baino 9,1 BPG puntu gehiago eta Nafarroan baino 10,8 puntu gehiago bideratzen dira gizarte-babesera. Horrela, EAEn, Europar Batasunean baino 5.233,90 milioi euro gutxiago zuzentzen dira xede horretara, eta Nafarroan, EBn baino 1.598,92 milioi euro gutxiago; hortaz, diferentzia 6.832,82 milioi eurokoa da, Hego Euskal Herri osoa hartuta.

15-EBko estatu gehienek gastatzen dute Nafarroak eta EAek baino gehiago gizarte-babesean, bi erkidegootako gastuak Irlandakoa baino ez baitu gainditzen.

### **GIZARTE-BABESEKO GASTUA (BPG %).** **EUROPAR BATASUNA, 2003 (\*)**

15-EB	28,3
Espainiako E.	19,7
EAE	19,2
Nafarroa	17,5

*Iturriak: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua*  
(\* Nafarroari buruzko datuak 2001eko ekitaldikoak dira.

### **6.2. Gizarte-babesean biztanleko gastatzen diren euroak**

Gizarte-babesean biztanleko gastatzen diren euroen kopurua aztertuta ere, emaitzak ez dira askoz hobeak.

EAEn, urtean eta biztanleko, 4.536 euro zuzentzen dira gizarte-babesera, hau da, Europako batez bestekoa baino 2.390 euro gutxiago biztanleko. Nafarroan, 3.835 euro bideratzen dira helburu horretara biztanleko, hots, Europako batez bestekoa baino 3.091 euro gutxiago biztanleko.

Kasu honetan, hiru estatu daude gure atzean: Grezia, Espainiako Estatu eta Portugal.

**GIZARTE-BABESEAN BIZTANLEKO GASTATZEN DIREN EUROAK.  
EUROPAR BATASUNA, 2003 (\*)**

15-EB	6.926
EAE	4.536
Nafarroa	3.835
Espainiako E.	3.656

*Iturriak: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua*


*(\*) OHARRA: Nafarroari buruzko biztanleko euro kopurua 2001eko datua erreferentziazat hartuta eta BPG nominalaren gehikuntzaren arabera 2003ra gaurkotuz kalkulatu da.*

**7. EUROPAR BATASUNEKO AZKENAK OSASUNEAN**

Gizarte-babeseko gastu osoan gertatzen den bezala, arlo zehaztutan ere defizit nabarmenak daude. Osasunaren kasuan, 2004ko ekitaldian 15-EBrekiko zegoen aldea aztertu dugu (horixe baita Europa mailan daukagun azken informazioa dagokion urtea).

EAEn, BPGaren %4,1 bideratu zen osasuneko gastu publikora, eta Nafarroan, %4,7, horrela 15-EBko estatu guztien atzean jarriz. 15-EBk BPGaren %6,8 gastatu zuen, batez beste (haztatu gabe), osasunean. Beraz, HEHK 2.151 milioi euroko urteko defizita agertzen du (1.795ekoa EAEn eta 356koa Nafarroan), bakarrik osasuna aztertuta.

**OSASUNEKO GASTU PUBLIKOA (BPG %). 15-EB, 2004**




*(\*) 2003ko informazioa*

*Iturriak: ELGE, Eustat eta Nafarroako Estatistika Institutua*

### 8. EUROPAR BATASUNEN AZKENAK HEZKUNTZAN

Hezkuntzari dagokionez, 2002ko ekitaldira jo behar dugu 15-EBrekin alderatu ahal izateko. Ekitaldi horretan, EAEk BPGaren %3,6 gastatu zuen hezkuntzan, eta Nafarroak, %3,4. Beraz, 15-EBko batez besteko ez haztatuari buruz, 1.417 milioi euroko defizita dago HEHn hezkuntzan (1.088 milioi EAEn eta 329 milioi Nafarroan).

HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOA (BPG %). 15-EB(\*), 2002



(\*). Ez daukagu Luxenburgori buruzko daturik

Iturriak: ELGE, Eustat eta Nafarroako Estatistika Institutua

### 9. ETXEBIZITZA-POLITIKA

Etxebizitzako gastu publikoa (%0,3koa EAEn eta %0,5ekoa Nafarroan) ez da arlo horretako arazoaren tamainari erantzuteko bestekoa.

Etxebizitzarako baliabideak, urriak izateaz gain, ez dira modu egokian bideratzen. EAEn, etxebizitzako zerga-arinketak 556,5 milioi eurokoak izango dira, hau da, etxebizitzako gastu publikoa (185,2 milioi euro) baino hiru aldiz handiagoak. Nafarroan, zerga-arinketak 138,5 milioi eurokoak izango dira, gastu publikoaren (78,9 milioi euro) bikoitza, alegia.

Zerga-arinketei etxebizitzako gastu publikoari baino lehentasun handiagoa emateko hautu politiko hori gutxikorra da; izan ere, zerga-arinketek:

- Ez dakarrie onurarik kolektiborik behartsuenei.
- Etxebizitza erostea erabakitzen dutenei diru-sarrerara publikoak ematea dakarte.
- Jabetza lehenesten dute. Zehazki, etxebizitzako zerga-arinketen %93,3 etxebizitzaren erosketara zuzendu ziren (%92,6 EAEn eta %96,4 Nafarroan), alokairura %6,7 besterik bideratu ez zelarik.

**ETXEBIZITZAKO ZERGA-ARINKETAK.  
EAE ETA NAFARROA, 2007**

	Erosketa		Alokairua		Guztira
	€	%	€	%	€
EAE	515.186,02	92,6	41.377,72	7,4	556.563,74
Nafarroa	133.571	96,4	4.963	3,6	138.534
HEH	648.757,02	93,3	46.340,72	6,7	695.097,74

*Iturriak: EAeko Aurrekontu Orokorrei buruzko Proiektua, 2007, NEI*



## B. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO GASTUAREN AZTERKETA

### 1. 2007ko AURREKONTU-PROIEKTUA

2007ko ekitaldirako aurreikusitako benetako gastua 8.712 milioi eurokoa da. Horrela, EJRen gastu publikora EAEn sortzen diren 100 eurotik 12,7 bideratzeko asmoa dago, 2006ko kopuruaren berdintsa, alegia (2006an, xede horretarako, BPGaren %12,6 gastatzea aurreikusi zen).

Aurrekontu-proiektuak 8.965 milioi euroko gastua (BPGaren %13,1) islatzen du, baina, kopuru horretan, Espainiako Gobernuak Abiadura Handiko Trenaren lanen hasieragatik ordaindu behar dituen 253,2 milioi euroak daude sartuta, Estatuko Gobernuak itzuli beharko dituen arren; beraz, balio bereko diru-sarrera dakarren gastu bat da. Aurreko ekitaldiekiko erkaketak homogenotasunez egin ahal izateko, zenbateko hori alde batera utzi dugu aurrekontu-proiektua aztertzean.

#### AURREKONTU-PROIEKTUA ETA BILAKAERA (MILA €kotan, GUZTIZKOAREN % ETA BPG %). EAE, 2006, 2007

	2007			2006
	07 PROIEK.	GUZT. %	BPG %	BPG %
Osasuna	2.793.630	32,9	4,2	4,3
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa	2.231.912	26,3	3,4	3,4
Herrizaingoa	585.888	6,9	0,9	0,9
Justizia, Lana eta Gizarte Segurantzza	511.415	6,0	0,8	0,8
Industria, Merkataritza eta Turismo	321.875	3,8	0,5	0,5
Kultura	237.983	2,8	0,4	0,4
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	257.285	3,0	0,4	0,4
Garraioak eta Herrilanak (*)	241.974	2,9	0,4	0,3
Nekazaritza eta Arrantza	157.956	1,9	0,2	0,3
Ogasuna eta Herri Administrazioa	167.157	2,0	0,3	0,3
Ingurumena eta Lurralde Antolamendua	112.923	1,3	0,2	0,2
Beste batzuk	866.943	10,2	1,3	0,8
<b>GUZTIRA (*)</b>	<b>8.711.561</b>	<b>100</b>	<b>12,7</b>	<b>12,6</b>

*EAEko Aurrekontu Orokorrei buruzko Proiektua, 2007*


(\*) AHTa eraikitzeko Espainiako Gobernuak ipini behar dituen  
253,2 milioi euroak kenduta.

## 2. GASTU PUBLIKOAREN BILAKAERA

Urtero, aurrekontu-proiektuak aurkeztean, gehikuntza garrantzitsuak aipatzen badituzte ere, EJren gastu publikora zuzentzen den aberastasun ehunekoak nahiko joera iraunkorra agertzen du.

Berez, 1998tik aurrera gertatutakoari begiratzen badiogu, 2007rako aurreikusi den portzentajea (%12,7) 1998koa (BPGaren %12,9) baino txikiagoa da. Era horretan, 2007an 1998ko ahalegin bera egingo balitz, aurreikusitakoak baino 114,7 milioi euro gehiago zuzendu beharko ziren gastu publikora, hau da, 55,1 euro gehiago biztanleko.

**EUSKO JAURLARITZAREN GASTU PUBLIKOAREN BILAKAERA**  
(BPG %). 1998-2007 (\*)



*Iturriak: 2007ko Aurrekontu Proiektua, Eusko Legebiltzarra, Eustat, EGL*

*(\*) AHTa eraikitzeke Espainiako Gobernuak ipini behar dituen 253,2 milioi euroak kenduta. Kopuru hori zenbatuz gero, EJK egiten duen bezala (oker eginda), gastu publikora bideratutako BPG portzentajea %13,1ekoa litzateke, grafikoan ikusten den legez.*




### 3. OSASUNeko GASTU PUBLIKOA

2007rako aurrekontu-proiektuak 2.793,6 milioi euroko zenbatekoa, BPGaren %4,19, jasotzen du xede horretarako. Diskurtso ofiziala gorabehera, kopuru horrek jaitsiera izan du 2006ko ekitaldi-koaren aldean, orduan osasunean BPGaren %4,25 gastatzea aurreikusi baitzen (36,8 milioi euroko jaitsiera, beraz).

1998tik aurrerako bilakaera aztertzean ikusten denez, 2007an osasunera zuzentzen den portzentajea 1998koaren (%4,16) oso antzekoa da.

**EUSKO JAURLARITZAREN OSASUNeko GASTU PUBLIKOAREN BILAKAERA (BPG %). 1998-2007**




*Iturriak: 2007ko Aurrekontu Proiektua, Eusko Legebiltzarra, Eustat, EGL*

#### 4. HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOA

Hezkuntzarako aurreikusitako gastua 2.231,9 milioi eurokoa da; beraz, sortutako 100 eurotik 3,45 hezkuntzan gastatzeko asmoa dago. Kopuru horrek murrizketa txiki bat adierazten du 2006koaren (%3,35) aldean, eta jaitsiera nabariagoa 1998koarekin (BPGaren %3,61) konparatuta.

#### EUSKO JAURLARITZAREN HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOAREN BILAKAERA (BPG %). 1998-2007




Iturriak: 2007ko Aurrekontu Proiektua, Eusko Legebiltzarra, Eustat, EGL

Hezkuntzako gastua mailaz maila aztertuz gero, gehikuntza ñimiño bat izan duen bakarra unibertsitateko irakaskuntza dela ikus dezakegu: esleitu zaizkion 292,5 milioi euroak BPGaren %0,44 dira, 2006ko %0,42aren eta 1998ko %0,43aren aldean.

Bigarren hezkuntzako, osabidezko hezkuntzako eta lanbide heziketako gastu publikoa 834,1 milioi eurokoa (BPGaren %1,25) izatea aurreikusten da; ehuneko hori 2006koa (BPGaren %1,37) eta, batez ere, 1998koa (BPGaren %1,5) baino txikiagoa da.

Haur eta lehen hezkuntzara 740,2 milioi euro, hau da, BPGaren %1,11, bideratzeko asmoa dago. Kopuru horrek ere atzerakada erakusten du 2006koarekin (BPGaren %1,15) eta 1998koarekin (%1,17) alderatuta.



Iturriak: 2007ko Aurrekontu Proiektua, Eusko Legebiltzarra, Eustat, EGL

Haur hezkuntzaren atalaren barruan, 0 eta 3 urteko umeen tar-  
tea dago. Herri-ikastetxeetan, ez dago gizartearen eskariari eran-  
tzuteko behar beste toki, tokien kopuruan izan den gehikuntza txi-  
kia jaiotza-tasaren igoeraren azpitik baitago. Ondorioz, gero eta  
familia gehiago geratzen dira estaldura publikorik gabe. Horrez  
gain, oso deigarria da Jaurlaritzak sare pribatuaren garapenaren  
alde egin duen hautua. Ildo horretan, 2007rako proiektuan jasotako  
transferentziak 47,4 milioi eurokoak dira, eta horietatik 20,3, Haur  
Eskolen sarea finantzatzeko erabiliko dira, eta 27,1, sare pribatu-  
rako.

## 5. ETXEBIZITZAKO GASTU PUBLIKOA

2007ko ekitaldiari begira, 185,3 milioi euro aurreikusi dira etxe-  
bizitzako gastu publikorako. BPGaren %0,3 adierazten duen kopu-  
ru hori bere horretan dago 2002az geroztik.

Kontinuismo hori, hain zuzen, 2006-2009rako Etxebizitza Plan  
berriaren ahulguneetako bat da. Hortaz, ez da harritzekoa 4 urteko  
indarraldian 30.000 lagun beharri erantzutea aurreikusten  
duen plan horrek etxebizitza arloko premiak (87.700 etxebizitza) ez  
asetzea.

Baina planari egin dakioken kritikarik zorrotzena, zalantzarik gabe, ingurumenaren jasangarritasunaren eta alokairuaren aldeko apustua egiten dutela diotenen diskurtsoaren eta praktikaren arteko jauzia da. Izan ere:

- a) Etxebizitza berrien eraikuntzaren alde jotzen du (jarduketan %80tik gora eraikuntzan dago oinarrituta). Hutsik dauden etxebizitzak merkaturatzeko ahalegina oso eskasa da, eta aurreko planean baino txikiagoa, gainera.
- b) Salmenta lehenesten du, alokairuaren kaltetan.

Alokatzeko eskaintzea aurreikusi diren etxebizitzaren portzentajea (%31,5) aurreko bi planetan baino txikiagoa da (%48,6 2000-2003 Etxebizitza Planean eta %45,1 2002-2005 planean).

Euskal Herrian jabetzaranzko ohitura handia dagoela sinestara zi nahi badigute ere, datu horrek argi uzten du instituzioek sustatzen duten politikak ere baduela eragina. Etxebizitza publikoak alokairuan eskaini beharko lirateke, horrek, etxebizitza-parke publikoa edukitzeko aukera eman ez ezik, horrelako etxebizitzak beti baldintzak betetzen jarraitzen dutenen eskuetan egotea ziurtatuko lukeelako.

**ETXEBIZITZAREN SUSTAPENAREN HELBURUAK. 2000-2003, 2002-2005, 2006-2009 ETXEBIZITZA-PLANAK.**

	2000-2003	2002-2005	2006-2009
ALOKAIRU %	48,6	45,1	31,5
JABETZA %	51,4	54,9	68,5

*Iturria: 2006-2009 Etxebizitza Bideratzeko Plana*

**6. OINARRIZKO ERRENTA ETA GIZARTE-LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK**

**Oinarrizko errenta**

Aurrekontuak onartze aldera PSEE-PSOerekin sinatutako akordioaren ostean, 2007ko oinarrizko errenta Lanbide Arteko Gutxieneko Soldataren (LAGS) %88koa izango da. Kide bakarreko bizikidetzak-unitateentzako oinarrizko errentaren igoera onuragarria bada ere, ez da inola ere nahikoa. Oinarrizko errentak pobrezia atariaren azpitik jarraitzen du. Eta, horrez gain:

- Kide bat baino gehiagoko bizikidetzak-unitateentzako oinarrizko errentaren eskala ez da aldatzen. Kide gehigarri bako-

tzeko eransten den gehikuntza oso txikia da eta, gainera, ez da aldatzen.

- LAGSaren %125eko gehienekoa bere horretan uzten da. Ezein bizikidetzta-unitatek ezin du LAGSaren %125etik gorako oinarritzko errentarik jaso, unitateko kideen kopurua edozein dela ere. Muga horrek ere larriagotu egiten ditu familia behartsuenen pobrezia-egoerak.

Beraz, aurrekontuetan oinarritzko errentari buruz jasotako erreferentziek ere ez dute balio pertsoneri bizimodu duina, autonomia eta kalitatekoa izateko besteko diru-sarrerak bermatzeko.

### **Gizarte Larrialdietarako Laguntzak**

Ildo beretik doaz Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL). Aurrekontu-proiektuak 31,5 milioi euro zehazten ditu laguntza horietarako (2006ko 30 milioien aldean). GLLei dagokienez, honako bi alderdi hauek azpimarratu behar dira:

- Ez dira eskubide unibertsal.- GLLak pertsonen premia-egoeretakoko behar zehatzak estaltzeko unean uneko laguntzak dira. Praktikan, etxebizitza-gastuak (ostatua eta abar) estaltzeko erabiltzen da gehiena. Baina ez dira eskubide unibertsal, aurrekontuak ematen duen neurrian baino ez baitira ematen. Aurrekontua amaitzen denean, gastua ere amaitzen da (premiak amaitzen ez diren arren).
- Esleitzen zaizkien baliabideak ez dira nahikoak.- GLLetarako aurrekontu-zuzkidurak urriegiak dira urtero, eta, ondorioz, pertsona askoren premiarik funtsezkoenak estali gabe geratzen dira. Bestalde, aurrekontu-urritasun horren aurrean, administrazioek bizikidetzta-unitate bakoitzarentzako baliabideak murriztea erabaki ohi dute.

### **7. INGURUMENA, LURRALDEAREN ANTOLAMENDUA ETA AZPIEGITURAK**

2005ean, EAEk %30ean gainditu zuen Kiotoko protokoloan onartutako negutegi efektuko gas-igorpenen maila, ekitaldi horretan gehikuntza bizia izan zuelarik. Hala ere, EJren aurrekontuetan 40,1 milioi euro zehaztu dira 2007an ingurumena babesteko: 2006rako aurrekontu-proiektuan baino 2 gehiago soilik.

Aurrekontu-proiektuan, ingurumenarekin loturiko hainbat alderdi aipagarri daude:

- 
- **Lurraldearen antolamendua** funtsezko atala da, baina Jaur-laritzak ez dio gai horri garrantzirik ematen, eta, horregatik, 6,1 milioi euro baino ez ditu arlo horretara bideratzen. Behar-beharrezkoa da lurraldea antolatzeko politika eraginkorra eta osokoa sustatzea, lurraldearen antolamenduarekiko elkarre-ragina duten gainerako politikak ere batera bilduz. Gobernuaren politikek –merkataritza-gune handiei buruzko dekretu onartu berria kasu– lehentasun handiagoa ematen diete enpresen interes ekonomikoei pertsonen eta ingurume-naren interesei baino.
  - 2007rako aurrekontu-proiektuak 281,8 milioi euroko zuzkidu-ra jasotzen du Abiadura Handiko Trenaren lanetarako (Espainiako Gobernuak 253,2 itzuliko ditu, eta 28,6 EJri dagozkie). Sarritan esan dugunez, ELA proiektu horren kon-tra dago. Pertsonen eta merkantzien tren bidezko garraioa lehenetsi behar da, euskal lurraldea egituratuz eta garraio-bi-deen arteko elkarrekintza sustatuz. AHTak ez du baldintza horietako bat ere betetzen.
-

## C. NAFARROAKO GASTUAREN AZTERKETA

### 1. NAFARROAKO GOBERNUAREN GASTU PUBLIKOA PUZTU EGITEN DA

2007rako aurrekontu-aurreproiektuan ere, aurreko bietan beza-la, gastu fiskalekin loturiko partida batzuk benetako gastuak balira bezala sartzea erabaki du Nafarroako Gobernuak, bildu gabe uzten diren diru-kopuruak gauzatutako gastutzat aurkeztuz.

Zehazki, 2007ko ekitaldian, 382 milioi euro dira horrela aurkeztuak. Gobernuak adierazitako guztizko gastuari (3.901 milioi euro) 382 milioiak kentzen badizkiogu, 3.520 milioi euroko benetako gastu-aurrekontua geratzen zaigu 2007rako.

#### 2007ko AURREKONTU-AURREPROIEKTUAN SARTUTAKO GASTU FISKALAK

	2007
Etxebizitzen alokairuak eragindako gastu fiskalak	4.963.000
Ohiko etxebizitzan inbertitzeak eragindako gastu fiskalak	133.571.000
<b>Ingurumen, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua</b>	<b>138.536.007</b>
Lana sortzeak eragindako gastu fiskalak	16.844.000
Inbertsioak eragindako gastu fiskalak	146.060.000
I+G+In inbertitzeak eragindako gastu fiskalak	17.871.000
<b>Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentua</b>	<b>180.775.000</b>
Alarguntza-pentsioek eragindako kenketen ondoriozko gastu fiskalak	10.611.000
Zaintzaileen kotizazioek eragindako kenketen ondoriozko gastu fiskalak	471.000
Gizarte-aurreikuspeneko sistemarako ekarpenek eragindako gastu fiskalak	51.361.000
<b>Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentua</b>	<b>62.443.000</b>
Interes kulturalako ondasunetan inbertitzeak eragindako gastu fiskalak	3.000
<b>Kultura eta Turismo Departamentua - Vianako Printzea Erakundea</b>	<b>3.000</b>
<b>GASTU FISKALAK, GUZTIRA</b>	<b>381.757.007</b>

*Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua*

Ingeniaritza finantzario horren bidez, Barne Produktu Gordinetik (BPG) 2007ko gastu publikora zuzendutako portzentajea %22,9koa dela sinestarazi nahi dio gizarteari Nafarroako Gobernuak (NG), baina sortutako 100 eurotik xede horretara benetan bideratzen direnak 20,7 dira.

Interesgarria da bi kopuru horien arteko diferentziak Nafarroako biztanle bakoitzeko zifretan duen eragina. NGren aurre-


kontu-aurreproiektuaren arabera, 6.571 euroko gastu publikoa egiten da Foru Erkidegoko biztanle bakoitzeko, baina, benetan 5.928 euro zuzentzen ditu, hau da, 643 gutxiago.

Argi dago helburua zein den: NGren gastu publikoa puztea. Kontabilitateko ingeniari-tza-jardunbide horri 2005eko ekitaldiko aurrekontu-proiektuan erabiltzen hasi bazen ere, 2007ko ekitaldian agertzen da nabarmenen. Izan ere, 2005eko eta 2006ko ekitaldietan sartutako gastu fiskalek %7,7 eta %7,8 loditzen zuten aurrekontu-proiektua; 2007an, berriz, %10,8 puzten dute.

## 2. NGren GASTU PUBLIKOAK EKONOMIAN DUEN PISUA URRITU EGITEN DA

Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, NGren gastu publikoak ekonomian duen pisua beherantz joan da azken urteetan, eta 1998ko ekitaldian BPGaren %21,5ekoa izatetik, 2007koari buruz aipatutako %20,7ra igaro da. 2007an NGk gastu publikora 1998an baino 137 milioi euro gutxiago bideratu zituela adierazten du jai-tsierra horrek, Foru Erkidegoko biztanle bakoitzeko 231 euro gutxiago esan nahi duena.

**NGren GASTU PUBLIKOAREN BILAKAERA (BPG %). NAFARROA, 1998-2007**




*Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua*



### 3. OSASUNeko GASTU PUBLIKOA

2007an osasunerako aurreikusitako gastua 806,3 milioi eurokoa da, hau da, BPGaren %4,8. Kopuru hori ez da inola ere nahikoa ez Foru Erkidegoko osasun-premiei erantzuteko, ez Europar Batasunaren aldean duen defizita murrizteko.

NGren OSASUNeko GASTU PUBLIKOAREN BILAKAERA (BPG %). NAFARROA, 1998-2007



Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua

Osasun arloko sail zehatzei erreparatuta ikus daitekeenez:

- Lehen mailako arretara 253,2 milioi euro –BPGaren %1,5– zuzentzea aurreikusten da. Lehen mailako arretaren barruan, 168,9 milioi, hau da, erdia baino gehiago, farmaziako gastura joango dira. Zehazki, osasuneko gastu osoaren %20 bideratzen da farmaziako gastura.
- Ospitalez kanpoko laguntzan, bestalde, 114,7 milioi euro gastatuko dira, hots, BPGaren %0,67.
- Lan-osasunera, 4,9 milioi euro zuzenduko dira, BPGaren %0,67 baino ez, alegia.

**OSASUNEO GASTU PUBLIKOA, SAIL ZEHATZAK.  
NAFARROA, 2007**


	Miloi €	BPG %
Lehen mailako arreta	253,2	1,49
Farmaziako prestazioak	168,9	0,99
Ospitalez kanpoko laguntza	114,7	0,67
Lan-osasuna	4,9	0,03

*Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua*

**4. HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOA**

2007rako aurrekontu-aurreproiektuak 559,4 milioi euroko gastu publikoa jasotzen du hezkuntzarako, hau da, BPGaren %3,3koa. Horrek, berriro ere, Europatik oso urrun jartzen gaitu hezkuntzan ere.

**NGren HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOAREN BILAKAERA  
(BPG %). NAFARROA, 1998-2007**



*Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua*

**5. ETXEBIZITZA: BERMATU GABEKO ESKUBIDE  
UNIBERTSALA**

Gastu fiskalak alde batera utzita, 2007rako aurrekontu-aurreproiektuak 79 milioi euroko gastua, BPGaren %0,5, esleitzen du etxebizitzarako (portzentaje hori ia berdin-berdin mantendu da

---

azken urteetan). Kopuru eskas-eskasa da nafarrei bizimodu duine-  
rako eskubidea bermatzeko, eta gehikuntza nabarmena izan behar-  
ko luke horretarako.

Nafarroako Gobernuak muzin egiten dio milaka biztanlek etxe-  
bizitza lortzeko duten ezintasunari, etxebizitzaren egoerari buruz-  
ko azterlanik ere ez baitu egiten.

Gai horren gaineko azken azterlana 2001ean argitaratu zen,  
aurreko plana, 2001-2004 Etxebizitza Plana, aurkeztu zenean.  
Oraingoan, 2005-2008 Etxebizitza Plana ez da argitara eman, ez eta  
etxebizitzari buruzko azterlanik ere, eta, horrela, ezeztatu egiten du  
Nafarroako etxebizitza-premiei eta etxebizitza duina lortzeko ozto-  
poei buruzko informazio zehatza lortzeko aukera.

2005-2008 Etxebizitza Planak gehitu egiten du eraiki beharreko  
etxebizitza babestuen kopurua, baina gehikuntza horrek etxebizi-  
tzarik garestienetan –prezio tasatuko etxebizitzetan– du eragina,  
merkeenak, erregimen bereziko babes ofizialeko etxebizitzak,  
aurreko planean baino gutxiago baitira (3.750etik 1.500era gutxitu  
dira).

Gainera, alokairuan eskaintzeko etxebizitza babestuen portzen-  
tajea ere urritu egin da aurreko planekoaren aldean, %20 izatetik  
%16,2ra jaitsi baita. Era berean, aipagarria da hutsik dauden etxebi-  
zitzak merkatura ateratzeko egiten den apustu hutsala, Nafarroan  
hutsik dauden etxebizitzaren %4 bakarrik merkaturatzea planteatzen  
da eta.

